



JANGELA ZERBITZUARI BURUZKO INFORMAZIOA 3 URTEKOENTZAT 2019/2020 IKASTURTERAKO

Jangela edota haurtzaindegiaren zerbitzua erabili ahal izateko, APYMAren bazkidetza egitea beharrezkoa da. Izena emateko orria, web orrian deskargagai dago: <http://www.sarriguraso.eus/jangela-zerbitzuari-buruzko-informazioa-3-urtekoentzat-2019-20/>

APYMAren diru kuota 2019/2020 kurtsorako, 20 eurokoa izango da, familia bakoitzekoa (Kuota bakarra, seme bakarra izanda edo gehiago matrikulaturik ikastetxean).

Izena emateko epea jantokian edota haurtzaindegian; **Ekainaren 16a arte**, honako link honetan:

[NAV003.COMOCOMEN.COM](https://comocomen.com)

https://comocomen.com/_nav003/padres/login.php

Arazo edo zalantza baduzu mezu bat bidali dezakezu comocomen@ausolan.com eta, gaia idatzita "Joakin Lizarragako erabiltzaile berria". Honetaz gain jantokiren komisiorekin harremanetan jar zaitezke: jantokisarri@gmail.com ere bai.

JANGELA ZERBITZUAREN HASIERA 3 URTEKOENTZAT: IRAILAK 16

IRAILAK 16 ETA 20 BITARTEKO ASTEA: JANGELARAKO EGOKITZE

Monitoreek umeak 12:15ean jasoko dituzte gelan, handik komunera eta jangelara eramango dituzte. Umeak tutoreekin joango dira, eta 13:00ean gelara bueltatuko dira, gurasoek hara joan beharko dutelarik beraien bila.

IRAILAK 23 ETA 27 BITARTEKO ASTEA: LO-KULUXKAREN

Monitoreek umeak 12:30ean jasoko dituzte gelan (ordutegi hau kurtsu osoan zehar mantenduko da), eta jangelara eraman. 13:30ean lo-kuluxka egitera joango dira, eta bertan jasoko dituzte gurasoek, 14:45 eta 15:30 bitartean. Ordutegi honetatik kanpo ez da onartuko gurasoak umeen bila etortzea, gainontzekoak molestatu ditzaketelako.

Lo kuluxka egiteko lekua, psikomotricitate gelak izango dira. Gela batzuen umeak haur hezkuntzaren psikomotricitate gelara joango dira, eta beste gelakoak, lehen mailako hezkuntzaren eraikuntzan den beste psikomotricitate gelara joango dira.

Ostiralero eta kurtsu osoan zehar umeen bila etortzeko ordutegia **14:45 eta 15:30** bitartean izango da, eta lo-kuluxkako geletara joan beharko duzue. Ordutegi honetatik kanpo ezin izango da lokuluxka bitartean umeen bila joan, besteei eragozpenik ez eragiteko.

Abisuak Ausolaneko programaren bidez egin beharko dira, [NAV003.COMOCOMEN.COM](https://comocomen.com) link honetan, jantokiko arduradunari informazioa edo huts egitearena, umea jantokira joatekoa ez bada.

URRIAREN 1ETIK AURRERA

Goiz eta arratsaldeko ordutegiarekin hasiko gara urriaren 1ean, beraz monitore bakoitzak bere taldea gelara eramango du lo-kuluxka ostean, eta gurasoak hara joango dira bila arratsaldean.

JANGELARAKO BEHARREZKO MATERIALA

- **Zapara kutxa txikia**, izenaz markatuta egongo den aldatzeko arroparekin (prakak, kamiseta, barneko arropa eta galtzerdiak), eta paper-zapi busti pakete bat. Zapara kutxa kurtsu osoarako jangelan gordeko da. Kutxaren alboetan, umearen izen abizenak eta bere gelaren zenbakia idatzi behar da.

- **Umearen argazia** (duela gutxikoa), jangelako pertxeroan jartzeko. Argazkiaren atzeko aldean umearen izen-abizenak eta gela idatzita izan beharko ditu.



- Izenaz markatuta egongo den **mantala**. Astelehenero, ume bakoitzak mantala garbia eta izenaz markatua ekarriko du, eta ostiralero, monitoreek gurasoei itzuliko diote, garbitzeko. Ostiraletan jangelan geratzen ez diren umei ostegunean bueltatuko zaie mantala (gelako pertxeroan utziko da), beti ere behar bezala jakinarazi badute jantoki zerbitzuan. Haurtzaindegi zerbitzuaren erabiltzaileek astelehenero haurtzaindegi zerbitzuan utziko dute mantala, eta monitoreek jangelara eramango dute

Material guztia motxilaren barnean sartuta entregatuko da, gela bakoitzean horretarako utziko den plastikozko kutxa batean. Mesedez, abisatu tutoreei materiala uzterakoan, antolaketa erraztu ahal izateko. Materiala ahalik eta azkarren entregatu beharko da, eta **GALDU EZ DADIN, MATERIAL GUZTIA UMEAREN IZENAZ MARKATUTA EGON BEHARKO DA**. Motxilak gordeko dituzten kutxa hauek jangelan utziko dira.

BESTELAKO INFORMAZIOA

- Ume batek pixa edo kaka egiten badu, arropa zikina klaseko pertxeroan utziko zaio, eta monitoreak tutoreari abisatuko dio, honek gurasoei eman diezaien. Horrelakoetan, beharrezkoa izanen da ahalik eta azkarren jangelarako aldatzeko arropa gehiago ekartzea.
- Udaren zehar, zuen seme-alabekin saia zaitzekete egunez txupeta eta pardela ez erabiltzeko. Kurtsoaren hasieran umeren batek pardela erabiltzen badu, bere gurasoei aldatzeko arropa gehiago eskatuko diegu, beharrezkoa izango delakoan.
- Lo-kuluxkarako manta ekartzea ez da beharrezkoa, siestako geletan tenperatura egokia da eta. Norbaitek negurako ekarri nahi badu, izenaz markatua egon beharko da.
- Aldatzeko arropa aldatu nahi baduzue (negutik udararen aldaketa dela eta), jantokira eraman beharko duzue arropa berria, eta bertan, arduradunak kutxa barnean izango den arropa itzuliko dizue.
- Umeren batek elikagairen bati alergia edo intolerantzia izanen balu, alde zurretik jakinarazi beharko zaio jangela zerbitzuaren arduradunari, eta medikuaren informea ekarri, dagokion dieta ezarri ahal izateko.
- Egunen batean umea ez bada bazkaltzera geratuko (gaixorik egoteagatik, adibidez), jantoki zerbitzuaren arduradunari abisatu beharko duzue egun bereko 8:00ak baino lehen, programa honen bidez; NAV003.COMOCOMEN.COM (Abisuak - Abisu berria - Huts egitea). Beharrezkoa da jantokiko arduradunari abisua ematea programa honen bidez, bestela ez da izango huts egitea benetakoa.
- Anai-arreba helduenak irailean jantokira joatea nahi baduzue, bakarrik 3 urtekoak lo kuluxka egiten hasten direnean, hau da, 23tik aurrera, jantokiren arduradunari abisua egin beharko diozue ikasturtea hasi baino lehen. Honen bidez, irailaren kuota prorratureturik kobratuko da. Lehentasunez abisatzen ez bada, hilabete osoa kobratuko da. Ezin da menuak banaka eskuratu, ez irailean, ez ekainean, kuotaren bidez izena emanda ikasturtean zehar dauden erabiltzaileek.

Edozein informazio behar izanez gero, jar zaitzete kontaktuan jantoki zerbitzuko arduradunarekin, **Rosa Chocarro, 672 302 967 (WhatsApp)** telefono zenbakian edo jantokisarriguren@ausolan.com helbide elektronikoan.